

## **EH Bilduk Aiaraldeko plan estrategikoa behingoz osatzeko exijitu die Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundiari**

Laudioko Guardian enpresa itxiko dela jakin ostean, Aiaraldean Eskualdea 2022tik beirako sektorean erreferentziazko hub-a sortzeko ekimenaren %3a baino ez dela gauzatu leporatu die erakundeei.

EH Bilduk Aiaraldeko Plan Estrategikoa behingoz osatzeko eta Berehalako Jarduketan Planari lotuta zeuden inbertsioak premiaz betearazteko eskatu die Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundiari. Izan ere, eskualdeko egoera sozioekonomikoak ez du hobera egin eta horren adibide da atzo bertan Guardian Enpresak jakinarazi zuen erabakia: Laudion duen lantokia itxiko duela eta gaur egun dauden 171 langileak kaleratuak izango direla sei hilabete barru.

Lehenik eta behin, EH Bilduk langileei eta euren senideei elkartasuna adierazi nahi die eta eskualdeko egoera hobetzeko lanean jarraitzeko konpromisoa berretsi du. Izan ere, EH Bilduren ekimenez, 2019an eskualdea berpizteko ponentzia bat sortu zen Eusko Legebiltzarrean eta horri lotuta, 26 milioi euroko Berehalako Jarduera Plana gauzatzeko.

2022 eta 2023an martxan jarri behar ziren bertan jasotako neurri eta ekimen guztiak baino gaur da eguna noiz betetze maila oso baxua den. Bereziki kezagarria da industria arloko ardatza. Horretarako, 8,8 milioi inbertitzea aurreikusten zen baina %5,3 baino ez da gastatu.

Beiraren ehunean ere betetze maila oso baxua izan da. Aiaraldea eskualdea sektorean erreferentziazko hub bezala posizionatzeko estatu eta nazioarteko mailan Laudio Glass Hub ekimena sortu zuten 3 milioi euroko aurrekontuarekin. Gaur egun, aldiz, %3,4a baino ez da gastatu atal horretan. Eta bidean, Autoglass Glavistak itxiera prozedura martxan jarri du 240 langile kaleratzeko eta orain Guardian-ek beste 171 langile kaleratuko dituela iragarri du.

Era berean, Plan Estrategikoa 2022ko irailerako egon behar zen baina ez da oraindik onartu. Egoera ikusita, EH Bilduren ustez, planak erabateko porrot-a izan da inbertsioak ez direlako gauzatu eta bidean 400 bat lanpostu galdu direlako. Hori dela eta, Arabako Batzar Nagusietan eta Eusko Jaurlaritzan ekimen bana aurkezteko ditu jakiteko Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak egoeraren berri zuten, ze neurriak hartuko dituzten argitzeko eta Berehala Jarduera Plana izan duen eragina argitzeko.

## **EH Bildu exige al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Araba que completen de una vez el plan estratégico de Aiaraldea**

Tras conocer el cierre de la empresa Guardian de Laudio, ha reprochado a las instituciones de que sólo se ha ejecutado el 3% de la iniciativa para crear el hub de referencia en el sector del vidrio en la comarca previsto desde 2022.

EH Bildu ha reclamado al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Álava que completen de una vez por todas el Plan Estratégico de Aiaraldea y que ejecuten con urgencia las inversiones que estaban vinculadas al Plan de Actuación Inmediata. Y es que la situación socioeconómica de la comarca no ha mejorado y ejemplo de ello es la decisión que ayer mismo hizo pública la empresa Guardian: que cerrará su centro de trabajo en Laudio y que los 171 trabajadores que hay actualmente serán despedidos dentro de seis meses.

En primer lugar, EH Bildu ha querido mostrar su solidaridad con las personas que trabajan en ese centro y sus familias, al tiempo que ha reiterado su compromiso de seguir trabajando para mejorar la situación en la comarca. De hecho, a iniciativa de EH Bildu, en 2019 se creó una ponencia en el Parlamento Vasco y vinculada a ella se aprobó el Plan de Actuación Inmediata que recogía una inversión de 26 millones de euros.

Sin embargo, a día de hoy el grado de cumplimiento del citado plan es muy bajo respecto a todas las medidas e iniciativas que se iban a poner en marcha en 2022 y 2023. Especialmente preocupante es el eje industrial. Para ello, se preveía invertir 8,8 millones, pero sólo se ha gastado un 5,3%.

Más grave es si cabe lo que ha ocurrido con las inversiones previstas para impulsar el sector del vidrio. Con ese objetivo se planteaba la iniciativa Laudio Glass Hub, que con un presupuesto de 3 millones de euros aspiraba a posicionar al hub como referencia a nivel estatal e internacional. En la actualidad, en cambio, sólo se ha gastado un 3,4% en este apartado. Y por el camino, Autoglass Glavisa ha puesto en marcha el procedimiento de cierre para despedir a 240 trabajadores/as y ahora Guardian anuncia el despido de otros 171.

Por su parte, el Plan Estratégico, que debía estar para setiembre de 2022, todavía no ha sido aprobado. Ante esta situación, EH Bildu considera que el plan ha sido un fracaso total porque las inversiones no se han materializado y se han perdido unos 400 puestos de trabajo en el camino. Por ello, tiene previsto presentar sendas iniciativas en las Juntas Generales de Álava y en el Gobierno Vasco para conocer si el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Álava tenían conocimiento de la situación, qué medidas van a adoptar y qué impacto ha tenido el Plan de Acción Inmediata en el sector.